

IKASTAROA:

Gazteak eta drogen kontsumoarekin duten harremana



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud

Bilbon,

2013ko ekainaren 4an eta 11n

Tokia:

Bilbao, GEBen egoitza. Uriortu kalea 11 - behea

Ordutegia:

09:00etatik 14:00etara

Hizkuntza:

Ikastaroa **gaztelaniaz** izango da

Izena emateko epea:

Maiatzaren 8tik 22ra

Izena emateko:

www.gaztebehatokia.euskadi.net



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Gazteria Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Dirección de Juventud

IKASTAROA:

**Gazteak eta
drogen
kontsumoarekin
duten harremana**



Gazteekin lan egiten duten eragileei nerabeek eta gazteek drogak erabiltzen dituzten moduaren inguruan esku hartzeko tresnak eta jarraibideak eskaintzea da ikastaroaren helburu orokorra.

helburuak

- > Gure xede-biztanleriaren (nerabeen eta gazteen) ezaugarriak zehaztea eta euren errealitatea ezagutzea.
- > Drogekin ezartzen duten harremana eta drogak kontsumitzeko dituzten arrazoiak ezagutzea.
- > Gazteei eskaintzen diegun arreta-motari buruz gogoeta egitea, honako alderdi hauei erreparatuta:
 - > egiten duten kontsumo-mota;
 - > duten arazoa;
 - > dauden baliabideak.
- > Hainbat jarduketa-eredu eta -protokolo ezagutzea.

metodologia

10 orduko ikastaroa, bosna orduko bi saiotan banatua. Asteartean, **bi astean behin: ekainaren 4an eta 11n.**
Ikastaroko edukietan **teoria eta praktika** uztartuko dira.
Ikasle-kopurua: 22.

hartzaileak

- > Gazteen arloko langileak (Gazte Informazioa, udalak, aldundiak, gazteen elkarteak eta beste erakunde batzuk).
- > Hezitzaileak.
- > Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako orientatzaileak.



IKASTAROA:

**Gazteak eta
drogen
kontsumoarekin
duten harremana**



egitaraua

1. saioa

- > Nerabeak eta gazteak. Ezaugarriak.
- > Drogak. Kontsumo-motak.
- > Gazteak eta drogekin duten harremana.
- > Gazteekiko esku-hartzearen helburuak.

2. saioa

- > Esku-hartze ereduak:
 - > Espazio irekian esku hartzea: kaleko lana.
 - > Espazio itxian esku hartzea: ikastetxeak, aisiaguneak, gaztegunek...
- > Esku-hartze proposamenak: esperientziak.
- > Jarduketa-protokoloak.



irakaslea

Janire Gazopo Beaskoetxea, nerabeengan eta gazteengan eta drogetan espezializatutako hezitzailea. Arrisku-egoeran dauden gazteekin lanean eman du lan-ibilbidearen zatirik handiena, bai kalean, bai hezkuntzan, bai egoitza-baliabideetan. Etorkintza Fundazioan egiten du lan.

antolatzailea

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA > Gazteria Zuzendaritza > Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
944 03 16 45 / gaztebehatokia@ej-gv.es